



Usurbilgo Udala

2019KO URTARRILAREN 29AN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka
Xuban Zubiria Elexpe
Jone Urdampilleta Urdampilleta
Iñaki Ugarte Agirre
Irene Gartzia Palacios
Miren Josune Estella Arranz
Jose Mari Iribar Zapirain
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Andoni Atxega San Sebastian
Carlos Perez Fraisoli
Fermin Orue-Echevarria Iturri

Ordezko idazkaria: Olatz de Miguel Arnaiz

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2019ko urtarrilaren 29an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

1.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2018KO ABENDUAREN 10ETIK 2019KO URTARRILAREN 18RA (2018/1537-2019/0100).

Alkatetzak 2018ko abenduaren 10etik 2019ko urtarrilaren 18ra bitartean (2018/1537–2019/0100) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.



Usurbilgo Udala

2.- A-107 (IARTZA) EREMUKO HEU 107-11 EXEKUZIO UNITATEARI DAGOKION XEHETASUN-AZTERKETAREN ALDAKETA BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.

Alkateak adierazi du erredakzioan akats bat eman dela, hau da, plenora xehetasun azterketa baten aldaketaren behin betiko onarpena ekarri nahi zela, baina beste eremu bati dagokiona. Alkateak proposatzen duena da puntu hau mahai gainean uztea eta gaia behar bezala hirigintza batzordeak diktaminatu ondoren hurrengo plenora ekartzea.

Puntu hau mahai gainean geratu da.

3.- PINUEN TRATAMENDUARI BURUZKO MOZIOAK.

Alkateak adierazi du EH Bilduk aurkeztu zuen mozioa Antolakuntza batzordean tratatu eta bozkatu zela, baina plenorako deialdia egin ondoren, ostiralean, EAJk beste testu bat aurkeztu zuela. Jarraitu du esanez udal arautegiak ez duela aurreikusten deialdia egin ondoren aldaketarik aurkeztea, ez bada azken momentuko gertakizun edo larritasun bat, beraz, gertatutakoa erabat ezohikoa dela azpimarratu du. Hurrengotarako kontutan hartzea eskatu du.

Alkateak proposatu du EAJk aurkeztu duen testua tratatu edo ez bozkatzea.

Josune Urkolak esan du Antolakuntza batzordera ezin izan zuela etorri, baina bazekiela mozio hori tratatuko zela. Ostiralean, berriz, azken orduan plenoko gairerrenda jaso zuenean gaia tratatzen hasi zela eta azken momentuan gai berberari buruzko beste mozio bat idaztea erabaki zuela jakinarazi du.

Jarraian, batzarkideek aho batez erabaki dute EAJk aurkeztutako mozioa gairerrendan sartzea eta tratatzea.

Alkateak adierazi du bi mozio dituztenez, lehenengo EAJren mozioa irakurri dela eta bigarren EH Bilduk aurkeztu eta Antolakuntza batzordeak diktaminatuta datorrena, eta ondoren debatea egingo dela.

Josune Urkolak EAJk aurkeztutako mozioa irakurri du.

Jarraian, Jose Mari Iribarrek EH Bilduk aurkeztutako eta Antolakuntza batzordeak diktaminatutako mozioa irakurri du.

Jose Mari Iribarrek adierazi du bere ustez EAJren mozioan ez direla gaiaren mamian sartzen. Pinuaren arazoa dela dio monolaborantza bat izan dela eta horrek gerora oso



Usurbilgo Udala

egoera kaskarrak ekartzen dituela azpimarratu du, eta hau ondorioetako bat dela adierazi du. Bestalde, EAJren mozioan esaten dela dio tratamendu hau bai nekazaritza tradizionalen bai ekologikoan onartutakoa dela, Jose Marik dio bai onartutakoa dela baina motxilarekin. Zehaztu du EH Bilduren mozioan ezezkoa ematen diotela airezko tratamenduari. Gaineratu du horregatik joan beharra dutela Madrilera baimena eskatzera, ez baitago airezkoa baimenduta ez tradizionalen ez ekologikoan.

Duela bi aste Foru Aldundiarekin Irisasiri buruzko bilera bat izan zutela esan du eta bertan pinuen tratamenduari buruz galdetu zutela. Teknikariek erantzun omen zien lasai egoteko Madrilak ez ziela baimena emango-eta. Jasotako erantzunaren aurrean Jose Marik esan du tristea dela horren zain egotea. Era berean, galdetu omen zuten zergatik erabiliko zuten tratamendu hau, ea non egin diren probak, etab., erantzuna izan omen zen banda marroiarekin ez dagoela eginda inolako frogarik eta froga egitera doazela ez baitakite eraginkorra izango ote den.

Josune Urkolak azpimarratu du EH Bilduren mozioan Udalak Foru Aldundiari eskatzen diola udalerrri osoan pinuen gaitzaren kontrako tratamendu kimikorik ez egitea, eta Josunek galdetzen du zer egin behar zaion, hiltzen utzi?

Jose Mari Iribarrek galdetu die ea badakiten Usurbilgo egoera zein den. Ereku pribatu batzuk eraginda daudela dio, eremu handiena Kutxakoa izango dela eta Aian dagoela, Irisasi guztian daudenak ja ateratzeko moduan daudela dio beraz tratatzea alferrik dela, eta mantxa gehiena geratzen dena pinu maritimoan dela eta banda marroiak ez diola afektatzen gaineratu du.

Josune Urkolak galdetu dio ea horrekin zer esan nahi duen, Usurbilgo pinudiek ez dutela arazorik? Hala bada, ez direla tratatuko.

Jose Mari Iribarrek erantzun dio oso toki puntaletan dutela eta horiek ia herri gainetan daudela, ez tratatzea eskatzeko oraindik arrazoi gehiago.

Josune Urkolak esan dio, bestalde, tratamendu guztiak direla kimikoak. Erabili nahi den produktua nekazaritza ekologikoan onartutakoa dela eta gainera erabili nahi den dosia onartutakoa baina askoz txikiagoa dela azpimarratu du.

Jose Mari Iribarrek erantzun dio airezko tratamendua ez dagoela onartua ez tradizionalen ez ekologikoan.

Josune Urkolak esan dio airezkoa ez dagoela onartuta baina mozioaren testuan ez dela airezkoa aipatzen, esaten dena da pinuen gaitzaren kontrako tratamendu kimikorik ez egitea.



Usurbilgo Udala

Jose Mari Iribarrek argitu du egitera doazen tratamendua airezkoa dela eta horretarako eskatu dutela baimena.

Mozioaren testuan airezko hitza txertatzea erabaki da eta horrela erredaktaturik geratzen da mozioaren bigarren puntua: "Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio Usurbilgo udalerrri osoan pinuen gaitzaren kontrako airezko tratamendu kimikorik ez egitea".

Josune Urkolak adierazi du mozio honetan pinuak Gipuzkoan izan duen inpaktu ekonomikoaren aipamenik ez dela egiten. Horren harira jakinarazi du Gipuzkoan 9.000 baso-jabe daudela, horiek urtean 8 milioi euroko BEZa suposatzen dutela, 4.000 lanpostu zuzen eta 2.300 zeharkakoak.

Josunek esandakoak entzunda, Jose Mari Iribarrek adierazi dio ez al zaion iruditzen egin behar dutena dela atzera begiratu eta ohartu kudeaketa oso txarra aurrera eramanez dutela.

Josune Urkolak galdetu dio, aipatu dituen datuak eskuetan hartuta, ez al zaien kasurik egin behar.

Jose Mari Iribarrek erantzun dio berak ez duela horrelakorik esan. Eraginkorra den jakin gabe Gipuzkoa osoa fumigatu behar ote den galdetu du.

Josune Urkolak galdetzen du orduan zer egin dezaketen, gauza bat dela eskatzea ez egiteko, baina soluzio bat eman beharko zaiola esan du.

Alaitz Aizpuruak adierazi du, batetik, ez dela udal eskumena eta, bestetik, beste teknikari batzuk esan beharko dutela zer egin daitekeen edo zer aukera dauden edo aukerarik badagoen ere. Zehaz du esaten ari direna dela mundu mailan ez dutela ezagutzen banda marroiak modu erasokor honetan jotzen duenean aurka egiteko tratamendurik, zerbait egin beharko dela dio, baina airez fumigatzen denean produktua ingurura ere iritsi egiten dela esan du, beste zuhaitzetara, erreketara, pertsonetara. Egitera doazenaren egokitasunak bermatuta egon behar duela eta frogak egin behar badira beste modu batera egin beharko direla uste du, ez Gipuzkoa osoa fumigatuz.

Mirari Azurmendik azpimarratu du beraien mozioan ere informazioa erakundeei eta herritarrei zuzenean ematea aipatzen dela. Bestalde, Foru Aldundiko teknikariek esan zienari buruz eta Jose Marik esandakoa zalantzan jarri gabe, uste du idatziz jaso



Usurbilgo Udala

beharko luketela teknikariek, tertulia informal batean gertatu izan balitz bezala azaldu duela hemen.

Jose Mari Iribarrek errepikatu du Irisasiri buruzko bilera bat zela, udaleko teknikaria ere han zela eta akta batean jaso zela.

Mirari Azurmendik esan du teknikariek esandakoa aktan jaso bazen, hori ere mahai gainean jartzea eskertuko luketela.

Airezko tratamendua egiteak kezkatzen badu, Jose Mariri galdetu dio ea motxilarekin tratamendua egitea onartzen duen.

Jose Marik erantzun dio EAJren mozioan jasotzen dela tratamendu hau nekazaritza tradizionalen eta baita ekologikoan ere onartuta dagoela, eta hori ez dela horrela, lehen esan duen bezala airez ez baitago onartuta.

Mirari Azurmendik adierazi du debatea nahiko absurdoa iruditzen zaiola. Kontutan hartu behar dela dio lantalde bat ari dela gai honekin lanean eta aintzat hartu beharko litzatekeela.

Jose Marik galdetu du ea horien menpe egon behar duten, lantaldeko teknikariek esaten dutenean gainera "lasai, baimena ez da iritsiko".

Mirarik adierazi du teknikarien planteamendua ez zaiola batere serioa iruditzen eta ezin sinetsi dagoela.

Beraiek planteatzen dutena da informazioa herritarrei mahai gainean jartzea, zer egin behar den azaltzea eta noski zerbait egitea.

Gaixotasun hau monokultiboagatik dela Jose Marik esan duenari buruz Josune Urkolak adierazi du ez diola insignis pinuari bakarrik eragiten beste espezie batzuk ere gaixotu direla.

Jose Marik erantzun dio gaitzak eragindako hirurak koniferak direla. Gipuzkoa osoa korridore baten moduan pinudiz beteta badago, edozein gaixotasun korridore horretan zabalduko dela dio, aldiz, espezie aldaketa badago tartean ez dela zabalduko gaineratu du.



Usurbilgo Udala

Alkateak esan du garbi ikusten dela Foru Aldundiak asmo bat baduela eta horrekin aurrera egiteko Madrilera baimen eske ari dela. Bestalde, fumigazioak talde ekologistetan ardura sortu duela eta gaia jada debate publikoan dagoela esan du. Horrelako gai bat debate publikoan dagoenean, ingurumenaren eta osasunaren zaintzak lehentasunezko toki bat hartu behar duela uste du. Era berean, batez ere bi gauza direla oso ondo justifikatu beharrekoak esan du, batetik, egingo den tratamenduak ez diela kalterik eragingo natur baliabideei eta pertsoneri eta, bigarrenik, egingo den tratamenduak badaukala nolabaiteko berme bat gaitzari benetan aurre egiteko. Gaineratu du komunikabideetan entzun diela gaian adituak direnei gaitzak eragindako pinuek ja ez dutela salbaziorik.

Ikusita zalantzas betetako kontua dela, eskatzen dutena da horrelako tratamendurik ez egitea eta bestelako azalpenak edo kontuak baletoz, orduan ikusiko luketela esan du.

Alaitz Aizpuruak adierazi du EAJren mozioan gauza gehiago ere eskatzen direla, baina hemen azkenean kontrajarritako bi gauza daudela, mozio batean eskatzen da fumigazio hori aurrera eramatea eta bestean, berriz, fumigazio hori ez egitea, beraz, kontra-mozio bezala hartu beharko dela.

Eztabaida amaituta, hasteko, EAJk aurkeztutako mozioa bozkatu dute. Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Aurkako botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpuru Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Beraz, EAJk aurkeztutako mozioa ez da onartua izan.

Jarraian, Antolakuntza Batzordean aztertu eta gehiengoz onartua izan zen mozioaren testua onartu dute batzarkideen gehiengoaren aldeko botoarekin, honela dio:

“Mendiek, haien titulartasuna edonolakoa izanik ere, oso eginkizun sozial garrantzitsua dute, ez soilik baliabide naturalen iturri eta jarduera ekonomikoen oinarri direlako, baita hainbat ingurumen-zerbitzu ematen dutelako ere, hala nola: lurzorua eta uraren zikloa babesten dute, atmosferako karbonoa finkatzen dute, dibertsitate biologikoa gordetzen dute eta lotura ekologikoaren eta paisaiaren loturaren funtsezko elementuak dira. Baliabide eta aberastasun horiek guztiak onartzean, eta horietaz gizarte guztia baliatzen dela ikusiz, herri-administrazioek, nahitaez, mendiak zaindu, babestu, berritu eta hobetu behar dituzte, eta era berean, ustiapena irizpide horiekin antolatu behar dute.



Usurbilgo Udala

Gaur egun, gure lurraldean, baso eremuaren %38 inguru pinu insignisa da. Espezie horren monolaborantzak eta bere ustiaketa intentsiboak, urteen poderioz, espeziea ahultzea ekarri dute. Pinu insignis landaketek dituzten gaixotasunen zerranda luzea da eta, ezagutu ditugun azkeneko datuen arabera, Gipuzkoako insignis landaketen %50tik gora, banda marroi gaixotasunak jota dago. Azken urtetan egin den ustiaketa dela eta, naturan eta interes orokorreko elementuetan izandako galerak larriak dira.

Azken gaitzaren eragina dela eta, egoera berriaren aurrean Foru Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak jakinarazi dute pinu horiek masiboki tratatzeko aukera aurreikusten ari direla.

Guzti hori kontuan izanda, basoen interes orokorrari eta natur baliabideen zaintzari erantzungo dion kudeaketa eredua bideratzea premiazkoa da, eta oso kezagarria da basoen egoera larri horren aurrean, eskumena duten administrazio publikoek hartu duten ibilbidea.

Hori dela eta,

- Usurbilgo Udalak nabarmendu nahi du basoen kudeaketa interes publikoan eta baliabide naturalen defentsan oinarritzea ezinbestekoa dela.
- Usurbilgo Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio Usurbilgo udalerrin osoan pinuen gaitzaren kontrako airezko tratamendu kimikorik ez gitea.”

Bozketan egin denean, emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, mozioa gehiengoz onartu da.

4.- GALDERA-ESKAERAK.

Josune Urkolak galdetu du idazkariaren egoera zertan den, agian Pertsonal batzordean aipatuko zutela baina bera ez zela bertan izan.

Alkateak erantzun dio buru-belarri ibili direla idazkariaren ordezkoko bat topatzeko. Pertsonal batzordea egin zenean aipatu zutela dio erantzun baten zain zeudela eta berri onak dituztela adierazi du, pertsona horrek baiezkota eman baitu. Gaineratu du okerrik ezeean ostiralean bertan hasiko dela lanean. Beraz, Olatzek modu eskusiboan bere lanetara bueltatu ahal izango duela esan du.



Usurbilgo Udala

Garaziren egoeraz aipatu du Gaikuntza lortzeko azterketak gainditu dituela, baina orain 10 hilabeteko masterra burutu behar duela. Zehaztu du horretan hileroko astebeteko saio presentzialak egiten dituela Madrilén eta gero praktikako saioak gaikuntzako idazkaria dagoen udaletxe batean.

Olatz de Miguel ordezkariak zehaztu du Garazi momentu honetan lan-hitzarmenak aurreikusten duen baimen batekin dagoela, beraz, printzipioz urrian bere lanpostura itzuliko dela.

Alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:40ean eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, ordezkariak, ziurtatuz.